



## Norwegianek Bilbo eta Bartzelona arteko hegaldiak areagotuko ditu udan

Hegaldi merkeak eskaintzen dituen Norwegian hegazkin konpainiak jakitera eman duenez, udara begira areagotu egingo du Bizkaia eta Bartzelona elkartzen dituen lineako plazen kopurua; horrela, ia 270.000 eserleku eskainiko ditu.

Konpainiak jakinarazi duenez, Norwegianek orain arte negu sasoiari astelehenetik ostiralera martxan zituen hiru hegaldiei, udako asteburuetan (larunbatetan eta igandeetan) eskainiko direnak gaineratuko zaizkie.

Horrenbestez, orain arte neguan astero 38 hegaldi eta 7.068 plaza eskaintzen bazituen, udan 42 hegaldi eta 7.812 plaza izatera pasako da.

Erabaki horrekin konpainiak sendotu egingo du Bilboko aireportuarekin duen harremana; izan ere, Bartzelona doan hegaldiaz gain, Tenerifera eta Oslora doazen hegaldiak eskaintzen ditu Loituk.

Ondorioz, Norwegianek 269.334 eserleku eskainiko ditu guztira udako sasoiari Bilbotik: 242.178 Bartzelonara, 21.204 Tenerifera eta 5.952 Oslora.

### Foronda 16 orduz egongo da zabalik

Lau ordu gehiagoz egongo da zabalik Gasteizko aireportua, 16 orduz, alegia. Ryanair konpainia hegaldi erregularrak eskaintzen hasi behar da laster, eta hori dela eta, ordutegia zabaltzea erabaki da.

Hilaren 26an hasiko da kostu baxuko konpainia Milan-Bergamo aireporturako hegaldiak eskaintzen. 29an, berriz, Tenerifera bidaiatzen hasiko da.

Duela 37 urte zabaldu zuten Gasteizko Aireportua Forondan.



## Marten izandako uholde baten berri eman du Europako Espazio Agentziak

Marten izandako uholde baten berri ematen duten argazkiak zabaldu ditu ostegun honetan Europako Espazio Agentziak (ESA, ingelesez).

Gainera, Mars Express espazio-zundak ateratako argazki horietan meteoritoen talkak ikus daitezke.

“Duela milioika urte planeta gorrian gertatutako aldaketa geologikoa islatzen dute argazki horiek”, jakinarazi du ESA agentziak ohar baten bidez.

Espazio-zunda hori 2003. urtean jaurti zuten, planeta gorriaren lurrazala aztertzeko eta noizbait ura egon den argitzeko.

Europako Espazio Agentziaren arabera, Marten “ura eta izotza” egon zela erakusten dute irudi horiek, duela 3.500 milioi urte inguru, 25 kilometro zabaleko krater batean uholde bat egon zela frogatu baitu Mars Express espazio-zundak.

## Bi turista Ilargira joango dira datorren urtean


Bi turistak joan-etorria egingo dute Ilargira 2018.

urtean, astebeteko bidai batean, SpaceX enpresa estatubatuarraren Dragon espazio-ontzian, eta NASAREN laguntzarekin.

SpaceX-ek zehaztu duenez, bi pertsonak interesa agertu zioten enpresari eta, medikuaren azterketa eta froga fisikoak gaintzen dituztenean, izenak jakinaraziko dituzte.

Biak Dragonen bidaiari bakarrak izango dira. 2018an aieratuko dira, Cabo Cañabereleko (Florida) 19A plataforma historikotik, hain zuzen, Apolo programan erabili zutena.

Programa horretan hamaika hegaldi egin zituzten, 1968 eta 1972 urteren bitartean, Neil Armstrong eta Buzz Aldrin lehen aldiz Ilargira eramane zituen bidaiariak, 1969ko uztailaren 20an.



## Geratzea eskainiko die Bizkaiak kamioi batean aurkitutako 7 kurduei

Bizkaiko Foru Aldundiak bertan geratzea eskainiko die atzo Elorrión aurkitu zituzten dokumentaziorik gabeko zazpi pertsoneri.

Izan ere, hiru heldu (emakume bi eta gizona bat) eta lau adingabe (urte bat eta 10 urte bitartekoak) Murtziatik zetorren kamioi baten atoián idoro zituzten atzo arratsaldean, Eroski enpresak Elorrión duen biltegian karga deskargatzean.

Kamioiko gidaria bera izan zen aurkikuntza egin zuena 16:30 aldera. Gurutze Gorriari laguntza eskatu behar izan zioten itzultzaile bat eskatzeko, bidaiariak Iraketik zetozen kurduak baitira.



## Bilboko Metroko, Bizkaibuseko eta Euskotreneko tarifa berriak

Martxoaren 8tik aurrera Bizkaiko hiru garraiobide nagusiak (Bilboko Metroa, Euskotren eta Bilboko tranbia) erabiltzeko txartel multimodal berriak erabili ahal izango dira. Gainera, Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherako gazteek Bizkaibusen bidaiatzeko aukera izango dute titulu multimodal horrekin.

Aldi baterako tituluak Barik pertsonalizatueta erabili daitezke, eta gaur egun indarrean dauden tituluak (Gazte Bizkaibus edota Gazte Metro Bilbao) apirilaren 5ean desagertuko dira.

Gauzak horrela, martxoaren 7a izango da gaur egun indarrean dauden tituluak kargatzeko azken eguna. Dena dela, Bizkaiko Garraio Partzuergoak jakinarazi duenez Bilboko Metroaren urteko titulua ez da desagertuko.

## Athletic galtzaile, etxetik kanpo irudi hobia eman arren (1-0)



Athleticek 1 eta 0 galdu du Sevillaren aurka Sanchez Pizjuanen jokaturako partida. Itxura hobia eman duten arren, lehoiek etxetik kanpo garaipenik lortu ezinda jarraitzen dute.

Vicente Iborrak egindako gol batek erabaki du neurketa, lehen ordu laurdenean. Andaluziarrek onenekin Liga txapelketa lehiazteko ametsari eusten diote; bizkaitarrek, berriz, bederatzi partida daramatzate jada San Mamesetik urrun irabazi gabe.



## Noiztik eta zergatik ospatzen da?

Emakumeen nazioarteko eguna izango da asteazkenean, martxoaren 8a. Honetan, emakume eta gizona berdintasunaz gain, jendarte eredu parekide baten aldarrikapena egiten da. Baina zergatik ospatzen den eta zeren omenetan?

1908ko martxoaren 8an, 146 emakume langile erreta hil ziren New Yorkek Cotton lantegian. Dirudienez, soldata baxu eta lan baldintza txarreatatik protestan ari ziren, eta lantegi barruan egiten ari ziren itxialdia uzteko, kanpotik molotov koktelak jaurti zizkieten.

1910ean Emakume Sozialisten Nazioarteko Konferentzia Kopenhagen bildu zenean, Clara Zetkinen eskariz, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna egitea proposatu zen.

Aurreko urtean egindako proposamena onarturik, Alemania, Austria, Danimarka eta Suitzan ospatu zen lehen aldiz Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Martxoaren 19an izan zen orduan. Milioi bat pertsona baino gehiago bildu ziren mitin haietara. Besteak beste, emakumeentzat boto eta kargu politikoak betetzeko eskubidea eskatu zuten, lan egiteko, prestakuntza profesionala eta bazterketarik ez jasateko aldarrikatu zuten bezala.

Lehen aldarrikapen haien ostean, martxoaren 25ean, New Yorkeko Triangle fabrikari gertatu zen sutean beste 140 emakumezko hil ziren lanean. Haietarik gehienak etorkinak ziren. Gertakari honek eragin handia izan zuen AEBtako lan legedian. Nazioarteko Emakume Langileen egunetan, behin baino gehiagotan aipatuko zen Triangelen gertaturikoa, emakumeen lan baldintza txarren salagarri.

### EGURALDIA: ABISU HORIAN ARRATSALDEAN

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak hiru abisu hori ezarri ditu gaur, muturreko fenomeno meteorologikoengatik. Zehazki, 18:00etatik gauerdira arte, abisu horia egongo da indarrean elurragatik. Horrez gain, kostaldean enbatak izan litezkeela eta, beste abisu hori bat ezarri dute 14:00etatik 18:00etara. Halaber, abisu horia egongo da mendialdean haizeagatik, gauerditik eguerdira. egon daitezke. Eguraldiari dagokionean, **larunbatean**, ere ez da giro izango: eguraldi motela, euritsua eta haizetsua izango dugu. **Iganderako**, ez da aldaketa askorik espero.